# Urteko 24. Igandea B

# 114. Salmoa

*L.a. 90 / S.a. 2*




**Ibiliko naiz Jauna baitan,**
**bizi direnen eskualdetan.**

Maite dut Jauna, entzun baitu
Nik dudanean minki deitu.
Nere galdeak hartu ditu,
Nik egitean oihu kantu.

Hor zen orroaz herioa,
Hor dena sare ifernua.
Galdua nintzen, ezindua,
Oihu egin dut : "Hel, Jainkoa !"

On eta zuzen dugu Jauna:
Jaunak betiko bihotz ona.
Begiratzen du den xumena :
Kendu daut harek  nuen mina.

Harek hiltzetik jali gaitu,
Begiak boztu, oinak  piztu.
Ibiliko naiz Jauna baitan,
Bizi direnen eskualdetan.

Itzulpena : Xavier Diharce - Iratzeder O.S.B. ; Airea : Gabriel Lerchundi O.S.B.
Tout droit propriété de l'abbaye de Belloc